

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2020KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Joan den urriaren 10ean Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Bizkaiko Lurralde Historikoaren (BLH) 2020ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena; txosten hori osatzen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA), Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunde Autonomoaren (GUFÉ) eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten 20 erakundeen kontuek.

Kontuei dagokionez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du kasu guztietarako, salbuespenik gabe.

2020ko abenduaren 31ko finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak adierazi du zuzena dela BFAREN egoera. Doitutako aurrekontuaren emaitza positiboa da 80,8 milioi euroan, eta horrek aurreko ekitaldiaren aldean 115,8 milioi euroren igoera izan dela erakusten du. BFAREN zorpetzeak 298,6 milioi euro egin du gora, 2019ko datuekin alderatuta.

Epaitegiak, berebat, **aurrekontuaren egonkortasun- eta finantzaren iraunkortasun-helburuei** buruzko iritzia eman du. Ministroen Kontseiluak 2020ko urriaren 6an arau fiskalak eten zituen 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako. Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zien BFAk.

Bai BFAk bai gainerako erakundeek **zuzentasunez bete dute beren ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen lege-araudia**, nahiz akats puntualak aurkitu diren **administrazio-kontratazioaren** arloan (kontratu bat dagokion hasiera-agindurik gabe gauzatzea; eskumena ez duen organo batek kontratu bat esleitzea; larrialdiko kontratu bat justifikazio arrazoiturik gabe luzatzea; hainbat zerbitzu publikitate- edo lehia-printzipioak errespetatu gabe kontratatzea; zerbitzu-kontratu batzuek eta esparru-akordio batek ezarritako epeaz gaindi irautea).